

ERAKUSKETA IBILTARIA

Garapen Jasangarriaren Helburuak

*gure mundua eraldatzeko
marko berri bat*





Nor gara?

1990az geroztik, modu libre eta independentean lanean ari den Espainiako Irabazi Asmorik gabeko Elkarte bat gara. Espainian eta Latinoamerikako eta Afrikako herrialdeetan lan egiten dugu, garapenerako eta garapen-hezkuntzarako nazioarteko lankidetza-proiektuetan.



Misioa

Hegoaldeko herrialdeetako pertsonen giza garapenean eta garapen jasangarrian laguntzea, elkartasuna, giza eskubideekiko errespetua eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duten eta pobreziari, diskriminazioari eta arrazakeriari aurka egiten dieten ekintzak egiten.

Balioak

- **Giza eskubideekiko** errespetua defendatzen dugu; batez ere, **giza duintasuna**, pertsona guztiek berez duten balio bat dela uste dugulako.
- Herrien arteko **elkartasunean** sinesten dugu, pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko.
- Pertsonen **ahalduntzea** bultzatzen dugu, pertsona horiek garapen-ekintzetan modu aktiboan **parte hartzea** bideratuz.
- Emakumeen eta gizonen arteko **genero-berdintasuna** bultzatzen dugu.
- Pertsonen arteko edozein diskriminazio modu baztertzen dugu, eta **tolerantzia** bultzatzen dugu.

Jorratzen ditugun sektoreak

- | | |
|-------------------------|-------------|
| • Hazkunde ekonomikoa | • Generoa |
| • Elikadura-segurtasuna | • Hezkuntza |
| • Ura eta saneamendua | • Osasuna |

Informazio gehiago

www.accionsinfronteras.com

info@accionsinfronteras.com

Telefonoa 902 09 05 87

Garapen Jasangarriaren Helburuak

gure mundua eraldatzeko marko berri bat



2015eko irailaren 25ean, **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda** onartu zuten Nazio Batuek. Agenda horrek **Garapen Jasangarriaren 17 Helburu (GJH) eta 169 xede** ditu. Erakusketan ikusiko duzun moduan, helburu horiek hainbat arlotakoak dira, besteak beste: pobrezia, osasuna, hazkunde ekonomikoa, azpiegiturak edo bakea.

17 helburuak **unibertsalak eta bereizezinak dira**, eta **munduko herrialde guztiek ezarri behar dituzte**, herrialde bakoitzeko errealitateak, gaitasunak, garapen-mailak eta lehentasunak kontuan hartuta.

Helburu horien eta agendaren xede nagusia **pobrezia eta desberdinkeriak** amaiaztea da, eta era berean mundu osoko **gosea amaiaztea**, **desberdinkeriei aurre egitea**, **giza eskubideak** babestea, generoen arteko **berdintasuna bultzatzea**, bai eta **hazkunde ekonomiko jasangarri, barneratzaile eta jarraituaren** alde egitea eta guztientzat lan egokia eskatzea ere.

Gutako bakoitzak modu aktiboan parte hartu behar dugu GJH horiek zabaltzeko eta martxan jartzeko lanean, eta 2030era arte daukagu xedeak bete eta helburuak lortzeko.



HELBURUA

Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.



2030erako, **muturreko pobrezia amaiarazi nahi da pertsona guztientzat eta mundu osoan**, hau da, inor ez dadila bizi egunean 1,25 dolar estatubatuar baino gutxiagorekin; eta gutxienez erdira jaitsi nahi da pobrezia motaren batean bizi diren gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa.

Xede hori lortzeko, **guztientzako gizarte-babeseko sistemak** jarri behar dira martxan herrialde bakoitzean, batez ere pertsona zaurgarrienei zuzenduta; bai eta gizon-emakume guztiek **baliabide ekonomiko eta naturalak, oinarritzko zerbitzuak, lurraren kontrola, teknologia berriak eta finantzazioa eskuratzeko eskubide berak** dituztela bermatu ere.

Egun, **836 milioi pertsona oraindik muturreko pobrezian bizi dira.**

Gehienak Hego Asiako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako eskualdeetan bizi dira.

Pobrezia-maila handienak, sarritan, herrialde txiki, hauskor eta gatazkan daudenetan ikusi ohi dira.





HELBURUA

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.



Hemendik 2030era, **gosea amaiarazi** eta pertsona guztiek elikadura osasuntsua, nutritiboa eta urte osorako nahikoa dena eskura dezaketela ziurtuta nahi da. Gainera, **malnutrizio modu oro ere amaiarazi nahi da.**

Xede hori lortzeko, **nekazaritza-ekoizpena** eta ekoizle txikien diru-sarrerak bikoiztu nahi dira, besteak beste **lurrak, sargaiak, ezagutzak eta finantza-zerbitzuak modu seguru eta bidezkoan eskuratzeko bideak emanez eta merkatuan sartzeko bideak emanez.**

Gaur egun **795 milioi pertsona inguruk ez du nahikoa elikagai.** Hau da, munduko 9 pertsonatik 1ek.

Asia da gose diren pertsona gehien dauden kontinentea: guztien bi heren. Soilik Hegoaldeko Asian, ia 281 milioi pertsona daude desnutrituta.



3 OSASUNA ETA
ONGIZATEA



HELBURUA

Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.



Hemendik 2030era, **amen, jaioberrien eta 5 urtez azpiko haurren** munduko **hilkortasun-tasa murriztu** nahi da. **HIESa, tuberkulosia, malaria** eta arretarik jartzen ez zaien gaixotasun tropikalak **amaiarazi** nahi dira, eta **hepatitisaren**, uraren bidez transmititutako gaixotasunen eta beste gaixotasun kutsakor batzuen **kontra egin** nahi da.

Kutsakorrak ez diren gaixotasunek eragindako hilkortasunaren heren bat murriztu nahi da. Gaixotasun horiek prebenituz eta tratatuz, **buru-osasuna eta ongizatea bultzatu** nahi dira. Gainera, **sexu-osasunaren ugalketa**-zerbitzuak **modu unibertsalean eskuratzen** direla bermatu eta **osasun-estaldura unibertsala** lortu nahi da.

Gai kimiko arriskutsuek eta airearen, uraren eta zoruaren kutsadurak sortutako heriotza eta gaixotasun kopurua ere nabarmen jaitsi nahi da.

Era berean, **mendekotasuna sortzen duten substantziak gehiegi erabiltzea prebenitzea eta mendekotasunak tratatzea** indartuko da, estupefazianteen eta alkoholaren erabilera okerra barne. Eta **trafiko-istripuek eragindako heriotzak eta lesioak** ere erdira murriztu nahi dira.

Xede horiek lortzeko, **tabakoa kontrolatzeko** hitzarmena aplikatzea indartzea, **txertoak eta sendagaiak ikertzeko eta garatzeko jarduerak** babestea, eta horiek moduko prezio batean eskuratu ahal izatea planteatzen da. Gainera, **nabarmen igoko litzateke osasungintzaren finantzazioa** eta osasun-langileen prestakuntza eta kontratazioa.

Gaur egun, **urtean 6 milioi neska-mutil baino gehiago hiltzen dira 5 urte bete baino lehen**. Erditzean hiltzen diren emakumeen proportzioa 14 aldiz handiagoa da garapen bidean diren eskualdeetan, eskualde garatueta baino.

HIESa da Afrikako nerabeen (10-19 urte) **arteko heriotza-arrazoi nagusia**, eta bigarrena munduko nerabeen artean.

4

KALITATEZKO
HEZKUNTZA



HELBURUA

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.



Helburu horren bidez, hemendik 2030era, **neska-mutil guztiek kalitatezko eskolaurreko irakaskuntza bat** izan dezaten bermatu nahi da, eta amai dezatela **lehen eta bigarren hezkuntza**, zeinak **doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa** izan behar duen.

Gainera, bermatu nahi da gizonek eta emakumeek —batez ere pertsona zaurgarriek— **trebakuntza tekniko, profesional eta goi-mailakoa eskuratzea, unibertsitate-ikaskuntzak barne**. Eta gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat ere alfabetatuta egotea.

Horretarako, beka kopurua handitzea planteatzen da, **hezkuntzaren bidez garapen jasangarria, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bakearen eta indarkeria ezaren kultura, kultura-aniztasuna baloratzea eta beste bultzatzeko**.

Lehen mailako hezkuntza jasotzeko adinean dauden eta eskolara joaten ez diren haurren % 50 gatazkan dauden guneeetan bizi direla kalkulatzen da.

Munduan, **103 milioi gaztek ez dute gutxieneko alfabetatze-maila, eta % 60 baino gehiago emakumeak dira**.





HELBURUA

Genero-berdintasun a lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea.



Helburu honetako xedeen artean daude mundu guztiko **emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio eta indarkeria modu guztiak amaitzea**, salerosketa, sexu-esplotazioa, haur-ekontzak eta emakumeen genitalen mutilazioa barne. Gainera, sexu-osasuna jasotzea ziurtatu nahi da, ugalketa-eskubideak babestuz.

Maila guztietan **lidergo-aukera eta erabakiak hartzeko berdintasuna** bermatzea ere aurreikusten da, bai eta **zaintzak eta ordaindu gabeko etxeko lanak** aitortzea **eta baloratzea** ere zerbitzu publikoen, azpiegituren eta gizarte-babeserako politiken bidez. Era berean, etxean eta familian erantzukizun partekatua bultzatuko da.

Beharrezkotzat jotzen da genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea bultzatzen duten politikak onartzea eta indartzea, bai eta zenbait erreforma egitea ere emakumeei **baliabide ekonomikoak, jabetza eskuratzeko, lurra kontrolatzeko eta abar egiteko aukera-berdintasuna ematen dieten eskubideak** lortzeko.

Afrika iparraldean, ordainpeko lanen % 20 baino gutxiago egiten dute emakumeek nekazaritzakoak ez diren sektoreetan.

Saharaz hegoaldeko Afrikan, Ozeanian eta Ekialdeko Asian, neskek oraindik zailtasunak dituzte lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletara joateko.



6

UR GARBIA ETA
SANEAMENDUA

HELBURUA

Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.



2030erako **ur edangarria modu unibertsalean eta bidezkoan eskuratzea bermatu** nahi da, baita **saneamendu- eta higiene-zerbitzuak** ere. Horrela, aire zabalean kaka egiteari utziko zaio, eta uraren kalitatea hobetuko da.

Uraren kutsadura gutxitu nahi da, isuriak ezabatuz eta produktu kimikoen eta material arriskutsuen emisioak gutxituz. Era berean, erdira murriztu nahi da tratatu gabeko uren ehunekoa, eta gehiago birziklatu eta berrerabili nahi da.

Gainera, **ur-baliabideak modu efizientean erabili eta era integratu batean kudeatu nahi dira,** ur-eskasiari aurre egiteko. Horretarako, urarekin lotutako **ekosistemak babestu eta berrezartzea, nazioarteko lankidetzaz handitzea eta tokiko komunitateen parte-hartzea** babestea eta indartzea planteatzen da, uraren eta saneamenduaren kudeaketa hobetzeko.

Ur-eskasiak munduko populazioaren % 40ean du eragina.

2.400 milioi pertsonak ez du oinarrizko saneamendu-zerbitzurik; adibidez, ez du komun-ontzi edo komunik.

Egunero 1.000 haur inguru hiltzen da urarekin eta saneamenduarekin lotutako **prebeni daitezkeen beherako-gaixotasunen eraginez.**



7

ENERGIA IRISGARRIA
ETA EZ KUTSAGARRIA



HELBURUA

Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.



2030erako **energia-zerbitzu merke, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera unibertsala bermatu nahi da;** eta horretarako nabarmen handitu behar da energia berriztagarrien ekoizpena, eta energia-efizientzia bikoiztu behar da.

Era berean, nazioarteko lankidetzaz indartu behar da ikerketa- eta teknologia-arloetan, azpiegitura handitu eta teknologia hobetu behar da, baita energia-azpiegituren eta teknologia garbien inbertsioa bultzatu ere.

Munduan, **5 pertsonatik 1ek ez du elektrizitate-zerbitzurik jasotzen.**

Energia da klima-aldaketa gehien eragiten duena, munduan guztira isurtzen diren berotegi-efektuko gasen % 60 inguru isurtzea baitakar.



8

LAN DUINA ETA
HAZKUNDE
EKONOMIKOA

HELBURUA

Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea.



Helburu honen xedeen artean gizon-emakume guztientzat **enplegu erabatekoa, produktiboa eta duina** eta balio bereko lanagatik **ordainsari bera lortzea** dago. Bai eta **gazteen enplegurako mundu osoko estrategia** bat martxan jartzea ere, lanik ez duten, ikasten ez duten eta trebakuntzarik jasotzen ez duten gazteen proportzioa nabarmen txikitzeko.

Per capita hazkunde ekonomikoa eta barne-produktu gordinaren hazkundea gutxienez urteko % 7an mantendu nahi da herrialde garatuenetan, eta **produktibitate ekonomikoko maila handiagoak** lortu nahi dira, balio erantsi handia duten sektoreetan arreta jarritz.

Ekoizpen-jarduerak, lanpostu duinak sortzea, ekintzailatza, sorkuntza eta berrikuntza babesten dituzten politikak ere bultzatuko dira, baita **mikroenpresak eta ETEak eratzea** eta **haztea** ere, besteak beste.

Hazkunde ekonomikoa jasangarria izan dadin saiatu behar da, garatutako herrialdeetatik hasita; eta **lan-eskubi-deak babestu** eta langileentzako lan-ingurune seguruak eta arriskurik gabekoak bultzatu beharko dira, baita langile migratzaileentzat ere, bereziki emakume migratzaileentzat eta lan prekarioak dituzten pertsonentzat.

Aurreko horrekin batera, behar-beharrezkoa da ere **lan behartua**, gaur egungo esklabutza moduak, **haurren lana, pertsonen salerosketa, haur-soldaduen** erreklutamendua eta abar **amaiarazteko** neurriak hartzea.

Ia **2.200 milioi pertsona bizi dira** egunean 2 dolar estatubatuarren **pobrezia-atariaren azpitik**.

Munduan 470 milioi enplegu behar dira 2016 eta 2030 artean lan-munduratu diren pertsonentzat.

9

INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA ETA
AZPIEGITURA



HELBURUA

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea.



Garapen jasangarri bat lortzeko eta hainbat herrialdetako komunitateak ahalduzko azpiegiturretan inbertsioak egitea funtsezkoa dela aintzat hartuta, azpiegitura fidagarri, jasangarri, erresiliente eta kalitatezkoak garatzea aurreikusten da.

Industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari ekarpen nabarmen handiagoa egitea eta azpiegiturak modernizatzea eta **industriak berregituratzea** espero da, **jasangarriago izan daitezen.**

Gainera, beharrezkotzat jotzen da industria txikiek **finantza-zerbitzu gehiago aukeran** izatea, baita **ikerketa zientifikoa areagotzea eta** industria-sektoretako **ahalmen teknologikoa hobetzea** ere, bai zientzia eta bai teknologia babestuz.

2020rako **IKTen eskuragarritasuna** nabarmen handitzea eta herrialde ez hain aurreratuetan **Internet unibertsala eta merkea** izateko ahaleginak garatzea espero da.



10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



HELBURUA

Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea.



Helburu honek gogorarazten digu ezin dugula garapen jasangarria lortu eta ezin dugula planeta hau mundu hobeago bat egin guztiontzat, aukerarik, zerbitzurik eta bizitza hobeago bat izateko aukerarik ematen ez zaien pertsonak dauden bitartean.

Hori dela eta, **pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusiboa bultzatu eta sustatuko da**, aukera-berdintasunak bermatuz, eta horretarako **lege, politika eta jarduera diskriminatzaileak ezabatu** beharko dira eta, era berean, berdintasuna lortzea ahalbidetzen duten politiken alde egin beharko da.

Gainera, **munduko finantza-merkatuen araudia eta zaintza hobetu** behar dela ere esaten da, eta garapen bidean dauden herrialdeek ordezkaritza handiagoa izatea nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeek hartutako erabakietan.

Biztanle pobreenen % 40aren diru-sarrerak batez besteko nazionala baino tasa handiago batean **handitzea eta bertan mantentzea** espero da, baita **garapenerako laguntza ofiziala eta kanpoko inbertsio zuzena erakartzea** eta tratu bereziaren eta bereziaren printzipioa aplikatzea garapen bidean dauden herrialde guztiei.

Jaso diren beste xede batzuk dira migrazio eta mugikortasun ordenatua erraztea eta gutxienez % 3 **murriztea migratzaileen bidalketen transakzioak eta % 5 baino gehiagoko kostua duten bidalketen artekariak ezabatzea**.



11

HIRI ETA
KOMUNITATE
JASANGARRIAK

HELBURUA

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.



Gaur egun, **gizakien erdiak, 3.500 milioi pertsona, hirietan bizi dira**, eta 2030erako zifra gori % 60ra igoko dela uste da. Hori dela eta, helburu honek planteatzen digu hirietan aurkitu beharko direla gizakiak dituen arazo nagusien (pobrezia, klima-aldaketa, osasun-laguntza, hezkuntza...) soluzioak.

Horrela, pertsona guztiek **etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak** dituztela ziurtatu nahi da, baita **garraio-sistema** bat —batez ere publikoa—, **berdeguneak eta egoera zaurgarrian bizi diren pertsonen beharrak** (emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak) **kontuan hartzen dituzten gune publikoak ere**.

Xedeen barnean daude orobat **hondamendiek eragindako heriotzak eta kalte ekonomikoak gutxitzea, airearen kalitatea eta hondakinen kudeaketa** hobetzea, **hirigintza inklusiboa eta jasangarria** bultzatzea (giza asentamenduen antolaketa eta kudeaketa parte-hartzailea eginez), **auzo marjinalak hobetzea**, eta **munduko kultura- eta natura-ondarea** babestu eta **zaintzea**.

Horretarako, finantza- eta teknika-laguntza eman behar da, **eraikuntza jasangarriak eta erresilienteak eraikitze**ko, eta inklusioa eta baliabideen erabilera efizientea bultzatzeko **eta klima-aldaketa arintzeko eta hartara moldatzeko** politika eta plan integratuak inplementatu behar dira.



acción
sinfronteras
ONGD

mugarik
gabeko
ekintza
GGKE

12

EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK

HELBURUA

Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.



2030erako, baliabide naturalen kudeaketa jasangarri bat eta erabilera efiziente bat lortzea espero da. Horretarako, **alferrik galtzen diren elikagaien kopurua erdira jaitsi nahi da, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabiltze-jarduerak** bultzatu nahi dira **hondakin gutxiago sortzeko**, eta produktu kimiko gutxiago askatu nahi dira atmosferara, uretara eta zorura.

Pertsona guztiek garapen jasangarriarekin lotutako ohiturak ezagutzea eta **enpresek beren prozesuetan jasangarritasun-neurriak hartzea** lortu nahi da, eta irizpide horiek erosketa publikoetan ere gehituko dira.

Gainera, garapen bidean dauden herrialdeei lagundu nahi zaie, zientziaren eta teknologiaren bidez, **kontsumo eta ekoizpen modu jasangarriagoetarantz jo dezaten**, baita tokian tokiko garapena

bultzatuko duen **turismo jasangarria** bultzatzea ere. Azkenik, **erregai fosiletarako diru-laguntzak murriztu** nahi dira, herrialde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.



acción
sin fronteras
ONGD

mugarik
gabeko
ekintza
GGKE



HELBURUA

Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.




Helburu hau lortzeko, klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko **erresilientzia** eta egoera berrietara **moldatzeko gaitasuna indartu** behar da herrialde guztietan. Hori lortzeko, gobernuek **klima-aldaketari buruzko neurriak gehitu beharko dituzte plan nazionaletan eta sentsibilizazio-ekintzak egin beharko dituzte biztanleen artean eta erakunde-arloan.**

Horretarako, helburu honetan adierazten da herrialde garatuek **2020rako elkarrekin urtean 100.000 milioi dolar mugitzeko konpromisoa** bete behar dutela, klima-aldaketaren aurkako ekintzak modu eraginkor batean antolatu eta kudeatzeko; eta, era berean, gai horren inguruan hartutako nazioarteko konpromisoak ere bete beharko direla.



14 ITSASPEKO
BIZITZA



HELBURUA

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira.



Helburua lortzeko, **itsasoko kutsadura prebenitu eta murriztu behar da**, itsasoko eta kostaldeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatu behar dira eta **arrantza modu eraginkor batean arautu** behar da, gehiegizko arrantza eta legez kanpokoa amaiarazteko.

Gainera, aurreikusten da **hain aurreratuta ez dauden herrialdeek eta uharteek euren onura ekonomikoak handitu** behar dituztela, itsas baliabideak modu jasangarriagoan erabiltzematik; **arrantzale artisauak itsas merkatuetan sartzeko eta baliabideak eskuratzeko aukera izan dezatela**; eta ozeanoetako osasuna eta biodibertsitatea hobetu dadila, **ikerketaren garapena**, ezagutza zientifikoa eta itsas teknologiaren transferitzea **indartuz**.

Azkenik, ozeanoak eta baliabideak hobeto zaintzeko eta modu jasangarriago batean erabiltzeko beharra planteatzen da, eta horretarako **itsasoa baliatzeko eskubideari buruzko nazioarteko eskubidea** aplikatuko litzateke.



15

LEHORREKO
EKOSISTEMETAKO
BIZITZA



HELBURUA

Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemen eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria.



Helburu hori lortzeko, beharrezko ikusten da baso mota guztien **kudeaketa jasangarri bat** gauzatzea, basamortutzearen aurka borrokatzearen **degradatutako lurrak eta zoruak berreskuratzea**, eta mendietako ekosistemei eta hango bioaniztasunari eusten zaiela ziurtatzea.

Era berean, **ezkutuko ehizarekin eta babestutako flora eta faunako espezieen trafikoa amaiarazteko** neurriak hartu behar dira, **mehatxatutako espezieak babestu behar dira** gal ez daitezen, eta horretarako, habitat naturalen degradazioa murriztu eta ahalik eta bioaniztasun gutxien galdu behar da, baita neurriak hartu ere **espezie exotiko inbaditzaile**rik **ez sartzeko**.

Ekosistemen eta bioaniztasunaren balioak eta nazioartean, estatuan eta tokian-tokian garatzeko prozesuak **gehitu behar dira politiketan**. Gainera, **finantza-baliabide gehiago** mugitu beharko dira **ekosistemak eta bioaniztasuna zaintzeko**. Era berean, **baliabide genetiko**en parte-hartze justua eta bidezkoa bultzatu beharko da.



16

BAKEA, JUSTIZIA
ETA INSTITUZIO
SENDOAK



HELBURUA

Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.



Helburu honen bidez **indarkeria modu guztiak, heriotza-tasak, ustelkeria eta eroskeria gutxitu** nahi dira, eta **tratu txarrak, esplotazioa, giza salerosketa** eta **torturak** amaiarazi nahi dira.

Horretarako, **zuzenbidezko estatua bultzatu** behar da bai estatuan, bai nazioartean; **guztiontzako justizia** bermatu behar da; **informazioa modu publikoan eskuratzea** bermatu behar da; eta **oinarrizko eskubideak babestu** behar dira. Gainera, **nortasun juridiko bat izateko** aukera eman behar zaie pertsona guztiei, batez ere jaiotza-erregistroen bidez.

Legez kanpoko armen finantza-korronteak murrizteko ahalegina egingo da, eta **antolatutako indarkeriaren aurkako eta terrorismoaren aurkako borroka** indartuko da, baita lapurtutako aktiboak berreskuratu eta itzultzeko ahalegina ere.

Era berean, **garapen bidean dauden herrialdeen parte-hartzea** bilatuko da nazioarteko erakundeetan, **erabakiak modu inklusiboan, parte-hartzailean eta ordezkatuan hartzeko**, eta diskriminatzaileak ez diren legeak eta politikak aplikatuko dira garapen jasangarriaren alde.



17

HELBURUAK
LORTZEKO
ALIANZA

HELBURUA

Garapen Jasangarriako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea.



Garapen jasangarriaren helburuak lortzeko, gobernuen, sektore pribatuaren eta, oro har, gizarte zibilaren arteko aliantzak behar dira. Aliantza horien lehentasuna pertsonak eta lurra izango dira.

Finantza-arloan **estatuko eta nazioarteko baliabideak mugitu** beharko dira; eta, horretarako, garatutako herrialdeek hartutako konpromisoak bete beharko dituzte, **adibidez diru-sarrerera nazionalen % 0,7 garapenerako laguntza ofizialera bideratzea**. Era berean, garapen bidean diren herrialdeei **epe luzerako zorraren jasangarritasuna** lortzen lagundu beharko zaie, eta hain aurreratuta ez dauden herrialdeen aldeko inbertsioak bultzatu beharko dira.

Teknologiari dagokionez, **eskualdeko eta nazioarteko lankidetzak hobetuko da zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan, baita horiek geroz eta eskuragarriak izateko ere. Ekologikoki zentzuzkoak diren teknologiak eta laguntza-mekanismoak martxan jarriko dira, hain aurreratutak ez dauden herrialdeetan gaitasunak sortzeko.**

Merkataritzaren arloan, **merkataritza-sistema aldeanitz unibertsal bat** bultzatu behar da, arauetan oinarritzen

dena, irekia, diskriminatzen ez duena eta bidezkoa; **garapen bidean dauden herrialdeetako esportazioak areagotu behar dira; eta hain aurreratutak ez dauden herrialdeek** eskubiderik eta kuotarik gabeko **merkatu libreetan sartu behar dute** modu iraunkor batean.

Bultzatu beharreko beste arlo batzuk izango dira **garapen jasangarria lortzeko politiken koherentzia hobetzea**, arlo publikoaren, publiko-pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko aliantzak garatzea, eta abar.

Azkenik, herrialdeen **estatistika-ahalmenak hobetu beharko dira**, batez ere herrialde txikiak eta hain garatuta ez daudenenak, datu egokiak, fidagarriak eta kalitatezkoak izateko, baita garapen jasangarriaren helburuak betetzen ote diren **jarraipena egitea eta kontuak ematea** ahalbidetzen duten **adierazleak** izateko ere.